

Plaentxiarrak Herrialde azpigaratuetan

O.P.: 8.800 pta. (32,89 €)	OHIKO PREZIOA 14.500 pta. (51,47 €)
GABONETAN 6.850 pta. (41,17 €)	GABONETAN 11.500 pta. (69,12 €)
O.P.: 18.700 pta. (66,11 €)	O.P.: 7.900 pta. (27,97 €)
GABONETAN 13.700 pta. (82,34 €)	GABONETAN 5.950 pta. (35,76 €)
O.P.: 3.950 pta. (15,63 €)	O.P.: 16.000 pta. (52,08 €)
GABONETAN 2.600 pta. (15,63 €)	GABONETAN 11.000 pta. (66,11 €)
	O.P.: 8.900 pta. (29,00 €)
	GABONETAN 6.800 pta. (40,87 €)
	O.P.: 3.400 pta. (13,42 €)
	GABONETAN 2.400 pta. (14,42 €)

HIRUGARRIN

MULTIOPTICAS

Bergara, Arrasate, Ordizia, Eibar eta Errenteria

Ekarri erabilitako betaurrekoak eta guri behar bantienak dutenei bidaliko dizkiegu. Trukean, deskontu berrak emanago dirazu betaurreko berriak eros ditzazun.

ASKO EGIN DEZAKEZU

Bergara, Arrasate, Ordizia, Eibar eta Errenteria

MULTIOPTICAS-ek bere gaitz hartzen du betaurrekoak erabiltzeko laguntza emateko errealizazioan.

4.600 DESKONTU BONOIA

27,65 €



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88




EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA
Tel. 943 51 78 11

MULTIOPTICAS
Zorionak 2002



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Pil bazkide zozketa

Kamiltxo hartza

Hil honetan

**Kamiltxo hartz euskaldunaren
zozketa bikaina.**

**Bazkide bazara deitu (943 75 13
04) eta deitzen duzuenon artean
Kamiltxo eder bat zozketatuko
dugu.**

“Jolastu nahi al duzu nerekin?”

Ba deittu segituan.

Pil Pilean



Editoriala

Oingo alian Soralezetik kanpo urten eta munduko herrialde askotan euren laguntza eskeintzen diharduen emakume eta gizonen berri emon nahi izan dogu. Ez dogu danen berri emon baina tira..

. Beti egoten gara pentsatzen zela emon geinzen gure laguntzatsua edo zer egin gu baino egoera txarraguan daren herrialde horrerik laguntzeko. Eider eta Edurne eta segidan jarri ditudun "misiolarixak" erabaki bat hartu eta zuzenian bertara juaia erabaki zebeu momentu jakin baten. Guk pertsona horren proiektuak lagundu geinkez, Lagunduz taldiak egitten daben antzera eta bestelako egitasmo batzuk sortu bebai. Horretarako bidaia sortu bihar dira, elkartu eta indarrak bideratu. Errezagua da esatia egittia baino baina badare aukerak; kooperaziño taldiak sortu, Euskal Herri mailan hortan lan egitten daben elkartiak ezagutu eta lagundu (0,7 herrialde azpigaratuei emotiaren aldeko taldia, kooperaziño taldiak...).

Badago zer egin eta komenigarria da horrenbeste kontsumituko dogun gabon garai honetan, jateko be ez daukan jentiarekin akordatzia. Batez be onduan dauzkagunekin.

Beraz, zaindu Gabonetako kontsumismo basatixa eta euki goguan,emoten ez daben arren, larregi eukitzia gutxiegi eukitzia bezin kaltegarria dala.

Telegrapak: Kaixo.STOP. Plaentxi Ziti hankazgora dago.STOP. HarrYYY! .STOP. PottEEEr !.STOP. bihar zaittugu, baina bihar .STOP. gaur brigadillia dator.STOP. Zein ibili da herrixa gatzitzen izotza pasau eta gero?.STOP. Harrapatzen badabe Udaltzainak!.STOP. Udalak hartu daben antikontsumo jarrera goraiatzekua da.STOP. Hola, hola, arbolia lau bonbilakin.STOP. Iberdrolari urik bez ! .STOP. Futbol, futbol, fuuutbol !.STOP. Hainbeste miloi krobrau eta gero zertarako ?.STOP. Animo mutilak .STOP. Plaentxiako bertsozaliak asko ulertzen dabe, e ! .STOP. Donostiako kinielia eurak eruan zebeu. STOP. Ugaitzek Pil Pileko bazkidiak presionatzen dihardu gabero, gabero.STOP. Baina inork ez dosku bere kontu korronterik emoten.STOP. Hola ez dogu mendigaineko txaleta sekula amaittuko. STOP. Pezetak eurotara aldatzeko arazoren bat baldin badaukazu STOP. goguan izan hor daguala Pil Pilean STOP. Billetiak Udaletxe azpiko buzoian mesedez ! .STOP. Konturatuko zineten gure buru eta begi ninietan txanponak besterik ez darella.STOP. Eurobixion ! .STOP. Urte berri on Soraluze !



41.
alea

Argitaratzailea:
Pil Pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze. Telefonoa 943 75 13 04

Lan taldea:

Amara Agirre, Enara Agirre, Elene Alberdi, Eguzkine Aldazabal,
Gurutze Ariznabarreta, Maria Azkona, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Izaskun Gartzia, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar,
Gorka Prieto, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

E-maila: Pilpilean@euskalnet.net

Publizitatea: Jon Oregi
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil Pilean
Ekoizpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Lege-gordailua: SS-537-2.000
I.Z.K.-a: G20696563

Azala: Aitor Madrid
Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ALDIZKARI HONEK ERAKUNDE HAUEN DIRULAGUNTZA JASOTZEN DU EUSKARA BULTZATZEKO.



SORALUZeko UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kolaborazioa



Nerea Isasti

Gabonak. Duela egun batzuk, mintza praktikako eskola baten "Gabonak" gaia proposatu nuen berbetagai moduan. Ez da oso gai orijinala baina tira. Urtero, gabonak heltzen direnean, oporrak hartu baino lehen, derrigorrezko gaia bihurtzen da hizkuntza irakasle guztiontzat ikasleei gai horren inguruan berba egiteko eskatzea. Beti galdera berdinak izaten dira; zer egiten duzu gabonetan? gustatzen al zaizkizu gabonak? zeinekin igarotzen dituzu? Eta gehienetan, erantzunak ere berdintsuak izaten dira; maitasunezko eta alaitasunezko egunak direla, gustagarriak direla.... eta abar eta abar.

Aurten, nere eritziarekin bat datorren norbait aurkitu dut, neure ikasleetako bat hain zuzen. Erdia ingelesez eta beste erdia gazteleraz, arazia askorekin kontatu zigun, berak zela pasatu ohi dituen gabonak: "Diru mordo bat gastatu, begien aurrean ikusi ezin duzun senitartekoak gonbidatu eta aurpegi atsegina jarri. Baina inor ez da gogoratzen ezer ez dutenekin. Eta ez dago Afganistanera joan beharrik horretarako. Gure etxetik hurbil, ondoko etxean agian, langabezia dagoelako edo bestelako familiarterako arazoren bat duelako, egon liteke bizitza honetan ezer gutxi daukan norbait."

Neu ere bat nator iritzi honekin eta esan behar dut neuri ere ez zaizkidala gabonak gustatzen. Bakarrenetakoa naizela? ba seguraski bai, eta zer? Oharra: Egia da ume izateari laga eta erregaloen garaia amaitu aurretik pixkat gehixeago gustatzen zitzaizkidala gabonak.

Udala, kalitatea eta laguntza

Udala herritarrengandik gertuen dagoen erakundea dela sarritan entzun dugu, eta erakundea den heinean, kudeaketa on batean oinarritu behar du bere eginbarra, hauteskundeetako emaitzek alderdiei une oro beren arteko indar erlazioaren neurria ematen diotela ahaztu gabe.

Kontua da, bestalde, erabakiak hartzeko orduan zer nolako irizpideak erabili behar diren erabaki horiek aurrera eramanez ahal izateko. Gauza bat da talde bakoitzak duen ordezkariak, eta beste bat, nola bideratu indarren arteko korrelazioak.

Alkateak izan behar duen gidaritzza ez dut zalantzan jarriko, horretarako izendatu baitzuten bere alderdiko alderdikideek, eta herritarrek botoekin berretsi. Leihu honetara ekarri nahi dudana iritzia hau da: administrazio lokal batek erabili beharko lukeen baliabideen kudeaketak demokratikoa behar luke izan, erabili beharko litzukeen irizpideak bezala; horrela, talde lanak eskeiniko lizkigukeen onurak denok genituzke.

Kalitatea da erakundeek landu beharko duten erronkarik haundienetarikoa. Horretarako, Lewinek taldeetan kalitatea bultzatzeko alde eta kontrako indarrek duten eragina aipatzen ditu. Aldekoen artean, helburuak ondo finkatzea, aldaketen nahia ikustea edo talde lanerako ekipoekin kontaktzea egongo lirakeke. Eragozpenen artean, besteak beste, erakundearen partaideen arteko mesfidantzak

edo egitura estuegietara jotzea aipatzen ditu. Begi bistan dago Soraluzen obra ugari egiten ari garela, guztiak ondo planifikatu beharrekoak, egin beharrekoak denak, eta gauzatuta ikusteko denbora beharko dutenak. Horretaz aparte, udalak eguneroko gauzetan jarraitu beharra izango du, ikusten ez diren hainbat konturi erantzunez. Gidaritzari dagokio plangintza buktatzea eta lan taldeak dinamizatzea.

Gauza jakina da giro politikoak harremanak nahastu egiten dituela, hala ere, talde bakoitzak ditugun erantzunkizunei helduz gero, barne antolaketari behar duen kohesioa eskeiniz, ditugun erronkei erantzuten jakingo dugulakoan nago.

Bittor Tebiño

Eskerrak guztioi!

Memorial Atxako antolakuntzak eskerrak emon nahi dotsez, "bai korrikalarixeri parte hartzarren eta baita laguntzen ibili diren Soraluzetarreri be; bihotz bihotzez eskerrikasko! Zuengatik ez balitz, ezingo genduke Jesus Atxaren memoria hain era zoragarrixan mantendu! Onenak zarete!"

Atxa Memorialeko antolakuntza taldea

Memorial Atxari keaxto bat:Batek baino gehiagok komentatu dugu aurtengo Memorial Atxan anbulantziarik ez dela izan. Hurrengorako kontuan hartu beharrekoa dela iruditzen zaigu. Eskerrikasko.

Pedro Lete eta beste lagun batzuk

Aupa gazte!

Aurten ere iritsi zaizkigu gabonak, batzuei behintzat. Batzuei diogu,

badakigulako aurten ere horren zoriontsuak behar luketen egun hauek, jende askok; etxetik kanpo, ezkutuan, zeldako bakardadean edo eta aulki hutsak dauden mahaien inguruan pasatuko dituela.

Aurtengoa urte gogorra izan da Euskal Herriaren alde borrokan dihardugunontzat; atxiloketak, torturak, ilegalizazioak, espetxeratzeak eta erailketak izan dira eguneroko ogia. Baina aurtengo urtea bereziki latza izan da Soraluzeko herriarentzat, inoiz baino gertuago jasan ditugulako gatazkaren ondorio gordinenak, estatu zapaltzaileek indarrean duten eta PNV-EAk aurre egiten ez dioten kartzela politikak, hau da sakabanaketak, Asier Heriz eta Iñaki Saez lagunak kendu zizkigun. Denbora gutxira, polizia espainiarrak Anjelua atxilotu zuen eta aste betez txakurren esku izan ondoren, espetxeratua izan zen.

Jarrera hauek garbi erakusten digute oraindik borrokatzeko asko dugula. Jakin dezatela bada, PP eta PSOE osatzen duten faxistek, zein estatu inposatzaileen morroi eta zerbitzari diren PNV-EA-k ez dugula ezer ospatzeko, Euskal Herri aske eta sozialista lortu arte, bitartean borroka aurrera darrai.

Agur bat bihotzez, bidean erori diren Txorta eta Luis gudariei, etsaiaren esku dauden Lurdes, Pedro Jose eta Anjeluari eta herritik urrun dauden Eloi eta Juanjori. Agur berezi bat, gizatasun eredu izan diren Asier eta Iñakiri eta agur bero beroa senideei. **SEGI**


Oharra: Ahalik eta iritzi gehienek lekua izan dezaten, ez da komeni makinazko 15 lerro baino gehiago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena eta datu pertsonalak agertu beharko dute. Bidali gutuna 27. **Posta Kutxatilara - 20590 Soraluze.** Laburtu behar izanez gero, **Pil-Pileanek** horretarako eskubidea izango du.



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21 Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
50 Posta Kutxatila Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze



TXURRUKA
JATETXEA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE


Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak



Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Zelan pasatzen dituzu gabonak?



Kopeko langiliak

Batzuk lanian , fregaua egitzen, sukaldian.... oin ez da umetako garaixan moduan, gauza diferentia

da. Zuk ume txikixak daukazunian beste ilusiño bat izaten da, baina etxian jendia faltatzen danian tristuria sartzen da.

Gorka Salaberria
23 urte
langilea




Uste dot danon moduan pasatzen dittutela, familixan. Larregi jaten dogu eta gero hor ibiltzen gara urtian zihar kiluak kendu nahixan. Azken finian danon moduan juergia egin, familixiak kartetan jokatu, erregaluak egin.

Aritz Ramirez
11 urte
ikaslea



Gabonak etxekuekin pasatzen dittut. Onena erregaluak jasotzia eta ondo jatia izaten da.



Federiko Eguren
69 urte
jubilaua

Familixa artian pasatzen dittut. Gustokuen dotena jai eukitzia izaten da, baina oin ez dogu gaztetan moduan zelebratzen, mutilak ginanian bai izaten zan zeoze espeziala.

Iratxe sebal
22 urte
ikaslea



Familixiak, bai gabon egunian ta baita gabon zaharretan be, gabonak gustora pasatzen dittut.



*Inkstatzaileak:
Enara Agirre eta Ugaitz Catalan.*



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkartek
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

Zer berri?

Olea eta Albesa bittartian zubixa egitteko proiektua aurrera doa

Erredaktatzen dihardue Santa Anatik Errekaldera juateko egingo dan zubixan proiektua. Zubi barrixak Olea eta Albesa lotuko ditu, eta horretarako biharrezkua izango da fabrika zaharra botatzia. Albesak lagatako hutsunian zubi barrixari lekua egingo jako eta aprobetxauko da inguruak barritu eta txukuntzeko. Zubixa bi norabidetako bidia izango da, bai autuendako eta bai oiñezkuendako. Proiektu honek benta-ja desberdiñak ekarriko ditu: alde batetik herri barruan trafikua arinduko dau, herriko sarbidiak eta urtenbidiak gehituz. Beste alde batetik, bidia amaittu eta Ezoz Bidekuakin bat egiten dabean, aukeria egingo da



nahi daniel trafikua desbideratu eta herri barruko kaliak oinezkuendako bakarrik izateko.

Txurruken aldekoa izan eta trenbidian pasian ibiltzen danak be aukeria eukiko dau zubixa hartuta Oleatik trenbidera juateko, errepide nagusixan arris-kuan ibiltzeke.

Eibartik Soraluze ezagutzera

Abenduan bigarren astian, Eibarko Juan Antonio Mogel ikastolako neska mutikuak etorri ziran plaentxiara. Euren asmua, Soraluze pixkat gehixago ezagutu eta lekuri bitxienak bertatik bertara ikustia zan. Horretako leku bat izan zan Udala. Alkatiak bere buleguan hartu zittuan Eibartar neska mutiko danak eta pazientzia haundiz erantzun zotsen egin zotsezen galderei.



Lur azpiko kontainerrak Santa Anan

Mankomunitateak proposatu eta jua zan uztailian Udalak onartu ostian, lur azpiko kontainerrak jartzeko lanak hasi dira Santa Ana kalia. Zakarra batzeko sistema berri honek, hobekuntza nabarmena ekarriko dau gure herriko kalietako garbitasunaren mailan. Sistema oso sinplea eta eraginkorra da Udaleko hirigintza saileko teknikarixaren esanetan; "Aspalditik gen-bizen sistema hau jartzeko goguakin. He-



men jarriko dan sistemian Deba Barreneko bailara osuan jarriko dan berdina izango da. Sistemian oso sinplea da; lurazalian metalezko ontzi errektangularrak txiki bat ikusiko da, herritarrak handiak botako dau zakarra eta gero kamioiak barruan egongo dan kontainerra oso osorik hartu eta hustu egingo dau". Gainera sistema honen bitartez, zaborrak ez dau urakin kontakturik izango eta animalixak be ez dabe zaborretan ibiltzeko aukerarik edukiko. Bestalde, espolioak be garbixago eta libriago egongo dira. Guztira 5 kontainer jarriko dira, bi zakar arrunta batzeko, eta beste bana; papela, beira eta plastikua batzeko. Lan honek 11.583.000 pezetako aurrekontua izango dabe guztira. Aurrera begira, Udalak poliki poliki herrixan zihar era honetako kontainer gune gehixago jartzeko asmua dauka.

Zuhaitzak apaintzen

Herriko lorategi eta parkietako zuhaitzak apaintzen jardun dabe Udaleko langiliak abenduan zihar. Neska mutikuak adarrak lurrera jausteko zai zai egon dira egun honetan, makilak egin eta "espadatxinetara" jolasteko. Udaberriak jantziko ditu berriz adar eta hosto berriz zuhaitzak.



Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

Bolatokixa eta umiendako parkia Ezozin

Ezozin egindako lagunia egokitzeko lanen barruan, bolatokixa, umiendako parkia, bankuak eta aparkamentuak egiteko lanak hasiko dira datorren urtarian. Urtarrilian, zorua bihar dan moduan egokitzeko, "todo uno" esaten jakon lurrez estaliko dabe parke dana. Honekin batera, eta parkia zuhaitzez jazteko egitasmuari jarraituta, mota askotako zuhaitzak sartuko dira martxuan zihar. Oraindik ere aurrekontua eta finantziario moduak guztiz zehaztu barik baldin badabe, datorren urte amaierarako lanak amaituta edo aurreratu xamar izatia espero dau Udalak.

Arrizabaletako errekatxoko parkia

Ezozira bidian, trenbidia amaitzen dan eremuan dagan Arrizabaletako errekatxuan inguruan parkia egiteko lanak aurrera doiaz. Oin errekatxuaren bi aldeetako homak zementuz indartzeko lanak



egitten dihardue. Honen ostian, Izartu programatik dirua jaso ahala, umiendako egokittutako parke txukun bat egiteko asmua dago. Guztira 20 milloi inguruko

aurrekontua dauke lanak. Parkiak izango daben izena be erabaki barik dago oindio eta momentu honetan izen egoki bat aukeratu nahixan dabitx Udaletxian.

Jaiotza Atxolinen

Urkia Zelaiko soziedadiak azken urtietan egin daben moduan, jaiotza txiki bat ipini dabe Atxolin gainian. "Mendira doian jentia gabon sentimentua izan deitan" jartzen dabe jaiotza Atxolinen. Ideia originala, "baina hara goraino igo egin bihar da". Hori, hori, jentia tentau !



Urtarrilaren 1ian Eurua

2.002ko Urtarrilaren 1ian zabalduko da euarekin be erosketak egiteko aukeria. Urtarrilaren 1etik otsailaren 28ra pezetak euroengatik aldatzeko garaia izango da eta martxuaren 1etik aurrera pezetak ez du merkatuan inungo erabilpenik izango egin. Abenduan jende asko hurbildu da aurrezki kutxetara "euro diruzorroa" hartu eta euroa ezagutzen hasiteko. Poliki poliki ohittuko gara .

Aparkaleku berririk Txurrukan

San Ignazio auzoko Txurruka jate-txiak 24 aparkaleku berri izango ditte datorren urtarian. Aparkaleku berririk San Inazioiko ermitara doian bidetxiarren azpiko zelaian egingo dira eta dagoeneko hasi dira egokitze lanak. Aparkalekuak egiteko arrazoia begibistakua da, "ez dago jatera datorren jentia autua lagatzeko tokirik eta derrigor egin bihar genduzen. Aparkaleku berririk egitten diranian jentia lasaigato ibiliko da".





Ventanas
Olarri

- * Aroztegia, PVCa, Aluminioa
- * Terraza estaldurak, Balkoiak
- * Leihoak, manparak

Mendiola Poligonoa 10
20590 Sorluze 73 Posta Kutxatila





S.A.
Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Sorluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Zer berri?

Presuen egoeria salatzena ekimenak Gabonetan

Soraluzeko hainbat taldek; Segi, Etxerat, Batasuna, Euskal Herrian Euskaraz eta "Askatasuna"k, Euskal Presuak Espainiar eta Frantziar gartzelatik Euskal Herrira ekarri deizezen eta euren eskubidiak bete daittezen eskatzeko, ekimen ezberdinez osatutako egitarau bat prestatu dabe. Helburua, "gabon garaixan preso darenekin akordatzeko baliooko daben ekimen batzuk prestatzia izan da" antolatzaileen esanetan. 3 Dira Espainiar Estatuko gartzelatan preso dauden Soraluzetarrak: Pedro Jose Etxeberria, Lurdes Txurruka eta Anjel Murgoitio (aurtengo azaruan espetxeratua).

Honekua da prestatu daben egitaraua: Abenduan 23an, domekia: Presuengana Martxa ekimena. (Egun guztian Plaza Barrixan). 24an, astelehena: Olenzero, presuen alde kantuan. (Iluntzian kalez kale). 26xan, eguaztena: Pre-

so ohi baten hitzaldixa (19:00etan Arranuan).

27xan, eguena: "Torturarik ez" erakusketia. (Plaza Barrixan).

28xan, barikua: "Enkartelada" Etxerat ek deituta.

29xan, zapatua: "Presoa zeldan" antzerkixa. (19:30etan Gaztetxian).

30ian, domekia: Martuteneko espetxera martxa.

31n, astelehena: Presueri idazteko mahaixak eta Segik deituta, dispersioaren aurkako manifestaziñua 19:30etan.



Asteroko enkartelada Udaletxepean.

Hitzaldia Gabon jaien inguruan

Emeterio Sorazu etnografo ezagunak gabon jaixen ospakizunaren inguruko hitzaldi edar bat eskeini zeban jua zan martitzenian Abadetxe azpiko kapillan.



Emeterio Sorazu hizketan.

Emeteriok jai honen inguruan mundu osoko kulturak amankomunian dauzken ohiturak azaldu zittuan. Euskal Herrixa herri oso zaharra izanda, aintzina eta batez be naturarekin lotuta existitzen zan sinbologia eta ohituren berri emon zeban. Beste gauza askoren artian, Olenzero eta Olenzeroren inguruan be berba egin zeban, gauza berdina ez dirala azaldu Lehenagoko Olenz(ontasuna)aro(garaia) izenez aldatu eta oraindala 30 bat urte Olenz-ero, guztiz gauza ezberdina sortu zebela eipatu zeban. "Intentziño onarekin" bere esanetan, baina zer egitzen zan jakin barik. Hitzaldi bikaina.

Kazetariak: Jon Basauri eta Egoitz Unamuno.



Asier eta Iñakiri omenaldixa

Abenduaren 23an, Asier Heriz eta Iñaki Saezen errautsak zabaldu zittuzten mendi gainian. Honekin batera, euren oroimenez jarritako monolituaren inguruan, dantza eta bertsoz omendu zittuzten.

Udala eta Debegesa

Udaletxia, langillez osatutako beste enpresa baten moduan, derrigortuta dago lan arriskuak prebenitzeko. Hori dala eta, Deba barreneko beste udal batzuekin batera, "Lan arriskuak prebenitzeko" zerbitzu hau, mankomunitatiaren bittartez kontratatzia erabaki dau.

Kontainer bat erre dabe Olan

Olako auzuan abenduaren 16xan, arratsaldeko 16:30ak aldian, kontainer bat erre zeben. Auzokide batek, Udaltzaingoari deittu zotsan eta Udaltzainak itzali bihar izan zeban kontainerretik zerion sua. Udaltzaingua esanetan, "ez dakigu zeinek eta zein helbururekin erre daben kontainerra".

Multa abisuak alperrik

Abenduko bigarren astian Udaltzaingua ekimen berezi bat jarri zeban aproban. Gaizki aparkatuta zeren autueri, multia ipini aurretik, abisu orri bat jarri zotsen hurrenguan isuna jasoko zebela jakinaraziz. Abisu orrixa jarri arren, gidari askok eta askok ez zeben autua lekuz mobidu eta Udaltzainak isun ugari jarri zittuzten.

MAPFRE MAPFRE SORALUZE		
JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA		
JULIA IBARZABAL ARRIETA		
Gabolats, 5 b Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12 Eskuko telefnoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10 20.590 SORALUZE		

	SAN ANDRES Iturgintza
	<i>Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak</i> <i>Sukaldeak eta bainuak</i>
	Erreal kalea 2 behea Tfnoa 943 75 16 46

Ion Beristain

"Ehiztari ona izateko berba gutxi egitten jakin bihar da"

Udazkeneko koloriak emon dotse bide neguari eta lehenengo izotzen keinuak sentitzen hasitta gare. Urtaro bi honetxek ei dira egokixenak ehizan gozatzen dabenendako hola kontau dosku behintzat lonek. Eskopetia hartu, txakurrak karruan sartu eta dana prest dauka bere gustuko arratsalde bat pasatzeko. Eta geu be prest gare beronek kontautakuak entzuteko...

- Izen abizenak eta adina?

- Ion Beristain, 22 urte.

- Zaletasunak?

- Ehiza, futbola eta juergia.

- Negua?

- Ehiza sasoia eta hotza.

- Noiztik ehiztari?

- Umetatik, 8 urte nittuanetik

- Egun baterako planik onena?

- Goizian jaiki, ehizara juan eta suertia izan, eguardixan jatetxeren baten bazkaldu arratsaldian lagunekin poteatzera juan eta gabian juergia.

- Bazkari bikaina?

- Langostinuak, solomilua ta etxeko kopia.

- Txakurra...?

- Zer harrapau bihar dan arabera txakur mota bat edo beste bihar da.

Oilagorretarako Seterra; zozotarako Spanierra edo txinboa...

Txakurra ona bada berezkua daka, lagundu ein bihar jako. Baina garrantzi-tsuena jabiak eta txakurrak bixak afiziñua eukitzia da, bikote ona osatzia.

- Ehiza...?


- Egunaren arabera, suertia bihar da, batzuetan segiduan topau ta beste batzuetan bost ordu ibili ta bapez.

- Ze bertute izan bihar dittu kazarixak ona izateko?

- Erreflejo onak, jakinduria, txakur ona eukitzia. Beno baina on ona izateko berba gutxi egitten jakin bihar da.

- Egixa da kazarixak gizur asko esaten dittuela?

- Bai, batzuetan, piezia leku baten bota eta beste baten bota dala esan eta holakuak. Beti etortzen da ondo leku batzuk ixilian mantentzia...



BERTSUA

Jon eta bere txakurrak ai zer nolako kuadrila, mugitzen dan guztiari atzetik perdigo pila. Parranda latza eginda pauso motzean mutila, harria zast bota edo txakurra joan dadila. Oilagor errusiarrik ez du begizatzen ia ta zerbait dakarrenean ondoko lagunak hila, holaxe ibili ohi da gure ehiztari abila, basarritatik datozen oilo ta oilarren bila.

Etxebarri

Ion bera baino eskopeta haundixago bat besuetan dabela..

- Zerek emoten dau satisfaziño handixagua botatziak ala gero jatiak?

- Dudarik barik botatziak, nik ez dittut jaten.

- Kazarako sasoirik onena?

- Oilagorretarako oin, azaruan, abenduan; zozotarako urrian hasi eta otsailerarte.

- Inguru honetan ze harrapatzen da?

- Zozua eta oilagorra. Oilagorra egoten da iletargirik ez dauanian eta hotz haundixa dauanian. Baina komeni da, pasian sartzia bestela jai dago. Alemania eta Errusia aldetik etortzen dira.

- Hemendik kanpo?

Neuk eperra, erbixa ta paitxia

- Noiz juaten zara kazara?

- Libre dakatenian beti.

- Goizian goiz jaiki bihar izaten da?

- Bai eguna argittu baino hiru ordu laurden lehenago dana preparatzeko.

- Kazari batendako sari haundixa?

- Dozena bat oilaor, baina hori ametsetan egittia da.

- Eta amaitzeko. Aurtengua zela doia?

- Ondo, Ernesto Osuma eta bixon artian aurten hamar oilaor bota dittugu.

Gururu

Arandela pulituen fabrika
Standart Tipoa, Din eta Zeta
Arauk, eredu edo planoen
araberako Estanpazio lanak.



Estanpaciones **LAGA s.a.**

Industroaldea
telf: 943752350/1985
telefax: 943751702

42 postakutxa
20590 Soroluxe



Maidor Lopez

Podologo

65. kolejiatu zenbakia

Arragueta kalea,
2 bis C behea

20600 EIBAR

Tlfnoa: 943 82 04 88

EIDER UNAMUNO eta EDURNE IRIONDO

Nikaraguako eta Guatemalako

herritarrei laguntzen

Eider Unamuno eta Edurne Iriondo Soralezar gazteak Hego Amerikako bi herrialdeetan izan dira aurten; Eider Unamuno Odontologia ikasketak egiten ari da E.H.U.ko Leioako kanpusean. "Odontologos sin fronteras" erakundeak Nikaraguan laguntza programa aurrera eramateko zuen egitasmo baten berri izan eta joateko erabakia hartu zuen Eiderrek. Irailaren 17tik urriaren 18ra bitartean, hemendik joandako 26 bat lagunek, 8 edo 9 herritako 2.000 gaixo baino gehiagori kasu egin diete. Klinika mugikorra autobusean zutela egunean dozenaka laguni begiratu diete ahoa.

Edurnek berriz Arrasate aldean aurkitu zuen bere bidaiaren pizgarria. Mondragon Unibertsitateak urtero elkartuke programa bat antolatzen du Hego Amerikako hainbat lurraldetako jendearekin, Hangoak hona datozenean, hemengo kooperatiben funtzionatzeko era zelakoa den ikusten dute. Elkartruke programa horren bitartez etorri ziren Guatemalako komunitate indigena bateko, "Santa Maria Tzeja"leko bi pertsona Arrasate aldera. Edurnek Zuzenbide ikasketak egiten dihardu Arrasate eta han emandako hitzaldi batean ezagutu zituen bi Guatemaldarrak. Haiekin hitz egin eta gero, euren kabuz Guatemala aldera joateko ideia sortu zitzaion berari eta beste 3 laguni, ahal zen neurrian bertakoei lagundu eta herrialde hura ezagutzeko asmoarekin. Abuztuaren 24tik urriaren 9 arte iraun duen bidaiaren hilabete oso bat komunitatean igarotzeaz gainera, Mexiko, Guatemala eta Belize ezagutzeko aukera ere izan du Edurnek eta Eiderrek Herrialde horietan izan diren bitartean izan dituzten sentipen eta bizipenak gertuagotik ezagutu nahian, elkarrizketatxo bat egin diegu:

- Zerek bultzatu zituzteten herrialde horretara?

Eider: - Nik uste dot laguntzeko asmuakin zoiazela. Orokorrian, "3. Munduan" ez dago Osasun Zerbitzu publikorik eta gustatzen jatzun zeeze egitten lagundu bezeinke, ba fenomeno. Ukatu ezin dana da, beste kultura, bizimodu, jende eta abar. Ezagutziak be garrantzixa daukala holako erabaki bat hartzeko orduan.

Edurne: - Betittik izan dot zentzaziñua danon arduria dala, batzuk egoera baten egotia eta beste batzuk beste egoera guztiz ezberdin baten egotia. Aukeria izan dotenian bi aldiz pentsatzeko juan naiz. Haura ezagutu, hango jentiakin egon eta ahal dan neurrixan laguntzeko asmuakin.

- Ze lan egin ditzuzue bertan egon zareten bittartian?

Ei.: - Odontologia lanetan ibili naiz; haginak etara, enpastiak egin, zepilluak

"Injustizien aurreko zihurtasun eza oso gogorra iruditu jata" (Edurne)



Eduerne San ta Maria Tzejá komunitatean.

eta pastak banatu eta ahua eta haginak zela garbittu bihar diran azaldu...

Ed.: - Jende helduari ordenadoria zela erabili erakusten eta kontabilidade eskola batzuk emoten ibili naiz. Gero eskolan be egon ginan umiekin gure eta euren kulturari inguruan berbetan.

- Lagundu dozu zentzaziñuakin bueltatu zarete?

Ei.: - Bai, baina ez laguntza orokor bat. Pertsona zehatz batzueri; mina kendu, hagin ustelak dauzkala-eta barre egittera ausartzen ez dan hari irrifarria bueltatu, dentista pribau batera juateke aurrezten daben diruakin oinetakuak erosteko aukeria emon eta holako laguntzak emon ditzugu.

Zortzi urteko neskatxo bati, minez zeukan hagin bat etara notxan. Hurrengo egunian guregana etorri eta besarkada bat emon zotan, mina pasau jakola esaten. Momentu horregaittik bakarrik, uste dot zeozetan lagundu dotela.

Ed.: - Puff! Lagundu dogula esatia, asko esatia dala pentsatzen jata. Nik uste dot beti gelditu bihar jatzula askoz gehixago egin zeinken zentzaziñua, baina guk egin doguna gure ilusio eta borondate danakin egin dogu. Gainera, egin leikezun apurra, izugarri eskertzen dabe.

- Zer moduzko esperientzia izan da?

Ei.Ed.: - Kristona ezin hobia eta guztiz gomendagarria. Kristona benetan. Pila bat ikasten dozu. Euki zeinken ikuspuntua zabaltzen dotsu. Gozada bat!

- Esperientzia ona eta oso aberasgarria izan dala esan dozu. Zeozer egin jatzue bereziki gogorra?

Ei.: - Herri bakoitzian hiru bat egun egoten ginan baina batez be umiekin oso harreman estua lortzen genduan. Behin, hamar urteko mutiko batek zauri bat zeukala eta ixa osatuko zotsaun galdetu zoskun. Kamisetia jaso zotsanien zaurixa ikusteko, bizkor eta sabelalde dana hartzen zeban orbain bat zeukala konturatu ginan. Eskolako maisuari komentau

zotsagunian, pare bat urte lehenago, organuan trafikorako umiak bahitu zittuztela esan zoskun. Umiak han lagatzia, zeuken bizimodua ikusitta, oso gogorra izan zan.

Ed.: - Gogorrena, ze tratu jasotzen daben gobernuan partetik. Eskubide asko ez dira betetzen eta justiziak kaso egittia zaila da. Orainarte engainatu egin dittuzte sarri, ez zeukelako formaziñorik. Komunitadiak antolatutako egitasmu ekonomiko asko oztopatu egitten dotsez gobernuak eta multinazionalak. Kooperatibiak egindako eraikinak erre

"Guk galduta daukaguzen balore asko mantentzen ditzuzte" (Eider-Edurne)

eta apurtu dotsez baina harek berriro indarrak batu eta beti aurrera egitten dabe. Injustizien aurreko zihurtasun ez hori oso gogorra iruditu jata eta hemendik ezer egitten ez dala ikustia be oso gogorra egitten da.

- Zer izan da gehixen harrittu zaituztena?

Ei.: - Euren eskuzabaltasuna. Nahiz eta eurak ezer euki ez, dakenan erdixa emoteko prest dare, bueltan ezer espero bare.

Ed.: - Jendia. Daren moduan egonda, beti aurrera begira eta gauzak egitteko ilusiñuakin. Ez dabe galtzen denborarik ez daukenagaittik negar egitten. Danak batera egitten dabe esfortzua aurrera egitteko, ze zoritarrez, badakixe ez daguala beste modurik beren egoeria hobetzeko.

- Hemen badago pobrezia. Ezberdinak dira hango eta hemengo pobrezia?

Ei.: - Han gehixenak pobriak dira, az dago inbidixarik, bazterketarik... Gainera badakixe bakarrik ezin dabela miserixatik urten eta danak batzen dira elkarrekin. Danak batera aurrera egitten ahalegintzen dira. Hemen ez da hori gertatzen.

Ed.: - Han, komunitadian, danak dare egoera berdian, batek ez dauka argirik baina inok ez dauka. Hemen dirurik ez daukana baztertuta dago. Desberdintasuna gogorragua da hori bizitzen daganandako. Han gauza asko falta jakue baina danak batera doiaz elkartuta, danen esfortzuakin.

- Herrialde "aurreratuaguetako" gizartioi zer daukagu ikasteko herrialde "atzeratuago" horretatik?

Ei-Ed.: - Guk galduta daukaguzen balore asko mantentzen ditzuzte. Ez dira indibidualistak gure moduan. Batak bestiari laguntzen dotse eta errespetua dauke elkarren artian. Esaterako, jende nagusixari, ze azken finien gehixen bizi izan dabenak eta esperientzia gehixen daukenak dira. Honek, ze pentsatu emoen dau, ze berak be, aurreratzen juango dira, hala izan bihar dau, ze munduan atzian gelditza be ez da ona berendako, berendako. Orduan suposatzen dogu, guri pasau jakuna pasauko jakuela eta oin mantentzen ditzuzten balore batzuk



Eider Unamuno Lechekuagon enpaste bat egiten.

galtzeko arriskuan egongo dirala.

Zeren biharra ikusi dozue herrialde horretan?

Ei-Ed.: - Oinarrizko azpiegituran dauke biharrik haundixena; hezkuntzan, osasun zerbitzuetan... honekin batera, edateko ura, argindarra eta beste oinarrizko gauzak falta jakuez ixa daneri. Harek badauke gogua eta indarra aurrera joteko. Bittartekuak falta jakuez eta egitten jakuezen injustiziak

"Nikaragua guztian ibili gara eta danera 2.000 bat pertsona tratau ditzugu" (Eider)

denuntziatzaia. Hori danon arduria da, ze badakigu zela bizi diran, eta ezer ez egittiak, beren egoeria okertzen dau. Ze badakigu zela bizi diran, beste gauza bat da interesatzen jakun ala ez.

- Anekdotarik?

Ed.: - Hain diferentia dan toki baten, ixa gauza danak hartzen dabe anekdota ikutua; autobusian jartzia abentura bat da, topietaraino beteta bata bestian gainian, oiluekin, txoferrak peligro bat dira... A eta zelako impresiñua lehenengo aldiz tarantula bat ikusi genduanian... puf! eta gainera etxe barruan!

- Zuen moduan juatia nahi dabenari zer esan zontsakie?

Ei-Ed.: - Animauko gendukez bidaiatzera, beste toki eta jente bat ezagutzera. Gainera zeozetan lagundu bazeinke, hobe. Baina norbera da moldatu bihar dabena, ez zoiaz hara eurak aldatzera, zoiaz ahal dan neurrixan beren egoeria hobetzen laguntzera. Berak beren bizimodu eta kulturua dauke eta beste toki batera zoiazzen momentutik, hori errespetau egin bihar dozu. Guk pentsatzen dogu gure errealidadia dala bakarra eta onena, eta ez da hori ez da hola. Munduan errealidade ezberdin asko dare eta horrek ulertzian dago gakua.

Egoitz Unamuno


ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak



Santa Ana, 20 Behea
Tifonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tifonoa: 639 17 96 96

Bolia taberna



Etxaburueta
kalian

Soraluze

Telefona:
943 74 11 04


M. Eugenia Arizaga misiolaria "Lagunduz"

Plaentxiar misiolariak munduan zehar



M. EUGENIA ARIZAGA

Trinitaria da Argentinako Buenos Airesen. Eraso seksualak jasan edo baztertuak dauden neskei formazio profesionala erakusten die.



LUIS REMIGIO BOLUNBURU

Jesuita Taiwanen. Txinan urte asko egin ostean, handik bidali eta Taiwanera joan behar izan zuen. 91 Urte dauzka.



TERESA ELOSEGI

Kordimarialaria Brasilgo Rio de Janeiro hiriburuan. Eskola erlijioso bateko irakasle.



EVARISTA ARISTIMUÑO

Dominika misiolaria Ekuadorgo Quiton. Kartzeletako pastoralgintzan dihardu.



BERTA SIERRA

Dominika, Errepublikan Dominikarrear. Ume txiroei eskola eta jaten amaten.



JASONE LETE

Karitateko Karmelita Txileko Santiagon. Zahar erresidentzia baten lan egiten du.

Argentinako Buenos Airesen Trinitaria den Mari Eugenia Arizaga Soralezetarraren egitasmoari laguntzeko, Perutik ekarritako eskulanez osatutako azokatxoak jarri zuen joan den astean Lagunduz elkarteak, abadetxe azpian. Eraso seksualak eta bazterketa jasaten dituzten emakumeei formazio profesionala ematen dien zentru batean lan egiten du Maria Eugeniak. Zentzurako ordenadoreak erosteko behar duen dirulaguntza batzea da elkartearen nahia. Azokan saldutako produktuek emandako dirua eta Udalarengandik espero den laguntza baliatuko dute horretarako.

Ez da lehenengo aldia, Lagunduz elkarteak halako azoka bat jartzeko duena eta oso pozik daude herritarrengandik jasotzen duten harrerarekin. "

Jentia oso ondo hartzen gaitu, jentia laguntzia nahi dau eta asko etortzen dira. Horrek poza eta animua emoten dau". Jendearen harrera ona ikusita, Udaberrian, astero-astero etxean egindako goxoak saltzeko asmoa ere badabilte gainera.

Lagunduz elkarteak, "parroki inguruko jentia sortutakua da berez, nahiz eta pentsamentu ezberdineko jentia parte hartzen daben taldean". Azken urteetan jende berria sartu da taldean eta orain 8 pertsona inguruk osatzen dute. Elkartearen helburua, herriko misiolari euren egitasmoak aurrera eramaten laguntzea da eta asmo horren barruan kokatzen dira hain zuzen, Maria Eugenia Arizagari laguntza bidaltzea moduko ekimenak.

Bejondeizuela !
Egoitz Unamuno




Jende ugari hurbildu zen "Lagunduz" elkarteak jarritako azokara.

**Lonbide
taberna**

**Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak**

Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07



Ileapaindegia

**Peluquería
Marisa**

Kalebarren 10-1
Tfnoa 943 75 22 43
20590 SORALUZE

Jaurti

SORALUZeko INSTITUTUKO GAZTIEN ALDIZKARIXA

Soraluzeko Institutua eta Pil Pilean aldizkaria elkarlanean

2.001eko abendua 2. alea

ORIORA BIDAIA

Gu Soraluzeko D.B.H 1 mailako ikasle guztiak gara.

Instalazioa oso ondo zegoen: futbol zelaia, saskibaloiko kantxa, pin poneko 2 mahai, logelak, dutxak, komunak sukaldea, jantokia... eta dena oso garbi zegoen.

Ekintza asko eta politikak egin genituen: Orientin, txat, kantalost "furor moduan baina euskaraz" etab. Zoritxarrez eguraldiak ez zigun asko lagundu baina ala eta guztiz ere zoragarri pasatu genuen. Janaria oso goxoa zen. Ezin izan genuen eskalada egin gu joan baino lehenago haizeak 3 toneladako rokodromoa bota zuelako.

Monitoreak: Ana, Edurne, Pello eta Leire oso atseginak ziren eta beraiekin oso ondo pasatu genuen.

Ikastetxea prest baldin badago gu prest gaude berriro joateko.



AURTEN ERE BAGOAZELA!

Aurten ere DBH bukatzen ari garen ikasleok ikas-bidaiara joateko asmoa dugu. Azken urte hauetan gertatu den bezala, gure bidaiak egiteko bi talde sortu dira.: batetik Paris, Holanda eta Belgikara joan nahi dutenak eta bestetik Mallorcara. Atzerriko herrialdeetara joan nahi dugunok hogeita hamar lagun gara eta besteak, aldiz, hamar inguru. Beraz, garbi dago nora joan behar genukeen. Dagoeneko bidaiak eta hauen prezioak begiratzen hasi gara eta onena udan joatea dela pentsatu dugu, nahiz eta Aste Santuan baino garestiagoa izan.

Ikas-bidaia antolatzeke dirua lortu behar dugunez, ekintza desberdinak prestatu ditugu. Den-denok parte hartzea komeni delako

bost talde desberdinetan banatu gara eta talde bakoitzari zeregin bat egokitu zaio. Lehenik eta behin, ekain aldera, kamisetak, metxeroak eta pegatinak egin genituen. Hori zela eta, Santiago eta Santa Ana egunetan udaletxepean egon ginen hauek saltzen eta arrakasta handia izan genuen. Egun haietan, era berean, errifak saldu genituen, bi pertsonarentzat afari bat zozketatu genuelarik. Azaroaren 10ean ospatu berri den Gaztainerre azokan ere parte hartu dugu. Aurtengo Gabonetan polboroirik saldu behar ez dugunez, etxean eginiko produktuak saltzea pentsatu dugu: tartak, gailetak, kokoak, eta antzekoak... Hauetaz gain, salda eta txorizo ogitartekoak ere jarriko ditugu salgai. Halaber, kurtso hasieran, eskolako jolasorduetan,

pintxoak saldu genituen ikasle eta irakasleek hamarretakoa izan zezaten. Azaroan, Gabonak gertu direla eta, eguberrietako loteria saltzen aritu gara, honekin ere zertxobait irabazi nahian. Ekintza hauekin irabazi dugun diruaz gain, hileroko kuota bat sartzen dugu kontu batean eta orain arteko diru bilketa orokorra oso ondo doa.

Kurtso amaiera arte honela jarraituz gero, ez dugu arazorik izango DBHren bukaera modu atseginetan eta bikainetan ospatzeko. Kontuak kontu, gauza batez egon zaitezte seguru: aurten ere plentxiarrok gure herriaren izena goi-goian utziko dugu Europa alde horretan!

Ikasbidaikideak

Aintzane Esposito

Euskararen zabalera

Euskararen lurraldea aldatu egin da denborarekin, gorabehera desberdinak izanik historian zehar.

Honako mapa hau, erabat ongi ezagutzen den XVI. mendetik kanpo, gutxi gora-beherakoa da zenbait zatitan.

Ez dago dudarik Euskara piri-neoetan zabaldua zegoela, oraingo kataluniaren barneraino iritsiz.

Iparraldetik, Akitaniako hizkuntza aztertuz, hizkuntzalariak bat datoz: Euskara ez bazen bere kide hurbil bat hitzegiten zen, Bordeleraino zabalduz.

Mendebaldetik arazoa ilunago dago, dena den Pirineoetan baino askoz lehenago galdua zela ez da dudarik.

Hegoaldetik badirudi gora-beherak izan zirela. Erromatarren garaian Euskarak eremuak galdu zituen, baina erromatar inperioaren suntsitzearekin berreskuratu zuen parte bat. Antzeko zerbaite gertatu



Euskalkien mapa

zen musulmanen garaian.

Gora-behera hauetan lurralde euskaldun zenbaitek, erderak inguraturik, iraun zuten desagertu arte ;

hala gertatu omen zen Hueskako mendietan eta Errioxako Ojakastro ibarrean adibidez.

Egilea: Gotzon Elizburu

Euskalkiak

Hauxe da Bonapartek Kale ratutako mapetariko bat. Bertan, kolore desberdinez, zeuden euskalkiak bereizten ditu; Kolorea apalago izateak hizkuntzaren garaiko ahultasuna adierazten du.

Euskalkiak aztertu eta sailkatu zituen lehena Bonaparte izan da. Bere lanak, funtsean, oraindik ere balio du.

Bonaparteren arabera euskalkiak zortzi dira:

- 1.-Bizkaiera
- 2.-Gipuzkera
- 3.-Hego Nafarrera Garaia
- 4.-Ipar Nafarrera Garaia
- 5.-Mendebal Nafarrera Behera
- 6.-Ekialde Nafarrera Behera
- 7.-Lapurtera
- 8.-Zuberoera



Louis-Louçien BONAPARTE

Frantziako Napoleon I. zenaren iloba hau euskaltzale paregabea izan zen; beste zientzietan aritu ondoren, hizkuntzalari ekin zion izugarritzko kemenarekin: Frantsesa, Ingelesa, Italiara, Espainiera eta Euskera menperatu egiten zituen, beste hizkuntza asko gramatikalki eza-gutzeaz gain.


Bost bidai egin zituen gure Herrira, haietanbere bigarren emaztea -Clemencia Richard, euskalduna- ezagutu zuen eta laguntzaile talde bat eratu.

Kolaboratzaileen artean Intxauspe(Z), Duvoisin(L), Uriarte(B), Etxenike(N), Mendigatxa(N), Otaegi(G)

eta Salaberri(NB)aipa daitezke.

Bonaparteren ikergai nagusia herri hizkera zen; honek euskalkiuiak sakonki ikertzera eraman zuen. Ikerketa hauen emaitza liburu andana izan zen, berak idatziak: *Le verde basque en tableaux*, *Les dialectes d'aezcoa*, *de Salazar et de Roncal*, *Le basque de Fontarabie...* ala idatzieraziak: *Intxausperen Le verbe basque...* Duvoisinen *Laborantzako liburua*, Bible edo testament zahar eta berria... *Uriarteren Biblia*, *Doctrina Cristian* eta abar luze bat.

Bonaparte printzearen lana, beraz, gaitza da eta ezinbestekoa dugu gure Hizkuntzaren kondairan.



Ugaraxo

2.001eko abendua 4. alea

Plaentxi H. I. eta PIL PILEAN aldizkarixa elkarlanian



BURDIN BIDEA ezagutzen

Azaroak 20an, asteartea, Lehen Hezkuntzako 5. Eta 6. Mailako ikasleak burdin bidea ezagutu genuen.

Hiru herrik osatzen dute Burdin Harana:

- 1- Ormaiztegi
- 2- Zerain
- 3- Legazpi

Goizeko hamarrak aldera Ormaiztegiara heldu ginen autobusez. Ormaiztegiako trenzubia eraikin monumentala da: 18.000 tona burdin, 4 zutaberen gainean, 289 metro luzeko zubian. 1.864an eraikia, burdinezko zubi hau Madril-Irun trenbidearen obrarik handiena izan zen. Trenak bereziki burdina garraiatzen zuen eta ekonomi-gizarte iraultza ekarri zuen.

Zerainen hamaiketakua jan ondoren, Aizpeako Mehategiak ikusi genituen. Zeraingo mehategi hauek aberastasun iturri izan ziren XVII-XX. mendeen artean. Bertan, Erdi Aroko aztarnak, modernoagoekin nahastuta ikus daitezke: galeriak, mehazuloak, bolborategiak, biltegiak, ikaztegia, errausketarako 3 labe, tunelak...

Bazkaltzera Mirandaolara joan ginen. Mirandaola Legazpiko auzo txiki polit bat da, parke antzeko bat da.

Bertan, burdina lantzen zen, ola edo burdin lantegi bat zegoen. Ola hau, 1.400. urtetik

1.804.urtera martxan egon zen. Burdina lantzea

lan oso gogorra zen eta gizonak bakarrik egiten zuten lan, egunero ordu asko oporrik gabe.

Lan hau burutzeko ura beharrezkoa zen, horregatik izaten ziren hilabete emankorrenak urritik martxorakoak. Mendetan zehar Plazaola familiaren eskuetan egon zen. XX. Mendean Echevarria Aguirre familiak, ola goitik behera berre-raiki zuten. Ondoan ermi-

6. Mailako ikasliak

ta bat eraiki zen 1.580. urtean, bertan gertatu omen zen miraria gogora ekarriz. Behin burdinen artean gurutze bat aurkitu zuten langileek. Sutan sartu eta ez zen inoiz urtzen. Langileek, igandetan lan egiteagatik gertatu zitzairen madarikazio bat zela pentsatu zuten. Iruñako Apezpikuak miraritzat jo zuen. Orain, Legazpiko parrokiari dago burdinezko gurutzea.



2

Hemen argazkian agertzen garenok Ugaraxo 3 urteko umeak gara



6. Mailako ikasliak: Leire, Felix, Jone, Juan, Eva, Maria, Elsa, Enara, Itsaso, Ekaitz, Jondar, Ohiana, Xabier, Ainara, Estela, Mikel, Eider, Lara, Alba, Ainara, Nerea, Javier, Ane, Julene, Ane, Jon, Andoni, Julen, Miren, Janire.




Udazkeneko fruituak ekarri ditugu gelara: sagarra, naranja, platanua, mandarina, mahatsa, madarixa, intxaurrak, urrak, gaztainak, almendrak.... eta erakusketa bat egin eta gero, banan-banan probatu ditugu. Bai goxoak zeudela !!



Kaixo Olentzero, gure ikastolara etorri zarenez eta egunero ikusiko gaituzunez, zintzo portatzen saiatuko gara.





Ezagutzen dozu Olentzero?

Ina Arriola
8 urte



Olentzero pertsona oso ona da, alkondara zurixa, abarka eta txapela dauzka eta mendixan bizi da. Formala izan naiz eta uste dot erregalotxoren bat merezi dotela. Nik legoko bi kaja haundi eskatu bihar dotsaraz.

Nerea Alvarez
8 urte



Olentzerok, gorro beltza, fraka urdinak eta alkondaria eruatan ditu. Aurten formal formala ez naiz izan baina uste dot zeoze ekarriko dostala. Nik Play Staysonerako joku bat eskatu bihar dotsat.

Oier Larreategi 10 urte



Olentzero "mendixan" bizi da, "txabola" baten eta potolua da. Nik ez dot sekula ikusi. Aurten hotel jokua eskatu bihar dotsat bakarrik, es estutziarren. Formala izan naiz eta ekarriko dosta.

Manu Caballero 11 urte



Olentzero Loralden bizi da, potolua da eta bizar luzia daka. Nik Bartzelonako kamisetia eskatu bihar dotsat eta diru bebai, 5.000 pezeta edo. Ni ez naiz gaiztua izan eta uste dot ekarriko dostazela.

Ikusi Makusi Zein Ikusi?



Zein da alboko argazkian agertzen dan emakumia ?

Zein dan baldin badakizu,
DEITU

943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora eta emon zure erantzuna. Emon zure izen abizen eta telefonua.


Asmatu ezkerreko **liburu edar bat** irabaziko ahal izango dozu.

Aurreko aleko irabazliak:
Itxaso Varela eta Andoni Odriozola
Erantzuna: **Marisa Ezenarro**
Saria IRATXO dendan eskatu

Esaiizu... (amodiozko, zorion agurrezko.... mezuak)

- Kaixo lagunak: Osasuna eta errealak hola jarraitzen badabe, datorren urtian Ipuruan (Oier, Iker, Haritz).
- Iñigo eta Eneko dira futbolista onenak. Mezu hau bikotia topatzia nahi dogulako idatzi dogu (Eneko eta Iñigo).
- Olentzero heldu jaku konturatu barik. Erregalo asko eskatzia nahi dogu eta muxu bat emotia bebai (Irene, Leire, Ane).
- Olentzerori eskatzen dotsau: angulak, dirua eta nobixia (Aitor, Josu eta Beñat).
- Patinetan ibiltzeko pista bat eta eskalatzeko toki bat nahi dogu.
- Sazia bota daben tokixan egin leike? (Oier A., Gaizka A., losu A. Eta Joanes I.).





GABON KANTA

Gabon gaua



1

Gabon gaua,
gaurko gaua
Haurtxo bat jaio da
Aintza ta goraka zerutarrak
pozik eskeinka datoz artzaiak
Pakea lurreko danai
Jainko berbera baita.

2

Gau doatsu,
hain paketsu,
zerua dakartzu.
Beraz, kristau denak entzun zagon,
Haurtxo Jesusen berri ona hartuz,
pakean irauin dezagon,
danok elkar maitatuz.



Igarkizuna

Igarkizuna

Ez dauka hankarik
baztarrak dittu korritzen;
ez dauka hegorik,
airia dau ziharkatzen.

Erantzuna:


d(4)r(2)u(1)a(3)a(5)

Umetan zuri, mutiletan gorri
aguretan baltz,
ahogozagarrixa barrena
baina ipurdixa latz.

Erantzuna:

m(1) s(3) a(2) u(4) s(5) a(7) t(6)

Gaia Jarrita



Migelek eta Beñatek, euren gustoko neska bati emongo lotsakien bertso bat idatzi dabe. Barruan daroien maitasuna hustu dabe, aditzez josittako bertso edar honetan.

Fernadari, gure bihotzeko neskari:

Neska polita zara
zaitut begiratzen,
Fernanda izenakin
zaitut ezagutzen.
zure bihotza dut nik
niretzat gordetzen,
eta jarraitzen zaitut
sekretuz maitatzen.

Doinua: Xarmangarria zara...

Egileak: Migel eta Beñat.

AZOKAKO HITZ SOPA

	<table border="1"> <tr><td>Z</td><td>A</td><td>K</td><td>D</td><td>N</td><td>B</td><td>M</td><td>L</td><td>K</td></tr> <tr><td>A</td><td>X</td><td>U</td><td>N</td><td>Z</td><td>O</td><td>S</td><td>T</td><td>U</td></tr> <tr><td>P</td><td>X</td><td>T</td><td>R</td><td>B</td><td>A</td><td>R</td><td>P</td><td>X</td></tr> <tr><td>P</td><td>I</td><td>P</td><td>E</td><td>R</td><td>R</td><td>A</td><td>J</td><td>F</td></tr> <tr><td>A</td><td>E</td><td>T</td><td>A</td><td>M</td><td>O</td><td>T</td><td>E</td><td>G</td></tr> <tr><td>H</td><td>U</td><td>I</td><td>A</td><td>Z</td><td>A</td><td>P</td><td>D</td><td>H</td></tr> <tr><td>T</td><td>G</td><td>L</td><td>E</td><td>T</td><td>X</td><td>U</td><td>G</td><td>A</td></tr> <tr><td>A</td><td>O</td><td>I</td><td>R</td><td>A</td><td>N</td><td>E</td><td>Z</td><td>A</td></tr> <tr><td>L</td><td>H</td><td>J</td><td>O</td><td>S</td><td>F</td><td>R</td><td>P</td><td>I</td></tr> <tr><td>U</td><td>K</td><td>A</td><td>L</td><td>A</td><td>B</td><td>A</td><td>Z</td><td>A</td></tr> <tr><td>P</td><td>L</td><td>O</td><td>A</td><td>L</td><td>E</td><td>O</td><td>K</td><td>J</td></tr> <tr><td>I</td><td>P</td><td>T</td><td>Z</td><td>U</td><td>T</td><td>A</td><td>I</td><td>U</td></tr> <tr><td>K</td><td>J</td><td>M</td><td>A</td><td>N</td><td>S</td><td>O</td><td>R</td><td>S</td></tr> </table>		Z	A	K	D	N	B	M	L	K	A	X	U	N	Z	O	S	T	U	P	X	T	R	B	A	R	P	X	P	I	P	E	R	R	A	J	F	A	E	T	A	M	O	T	E	G	H	U	I	A	Z	A	P	D	H	T	G	L	E	T	X	U	G	A	A	O	I	R	A	N	E	Z	A	L	H	J	O	S	F	R	P	I	U	K	A	L	A	B	A	Z	A	P	L	O	A	L	E	O	K	J	I	P	T	Z	U	T	A	I	U	K	J	M	A	N	S	O	R	S
Z	A	K	D	N	B	M	L	K																																																																																																															
A	X	U	N	Z	O	S	T	U																																																																																																															
P	X	T	R	B	A	R	P	X																																																																																																															
P	I	P	E	R	R	A	J	F																																																																																																															
A	E	T	A	M	O	T	E	G																																																																																																															
H	U	I	A	Z	A	P	D	H																																																																																																															
T	G	L	E	T	X	U	G	A																																																																																																															
A	O	I	R	A	N	E	Z	A																																																																																																															
L	H	J	O	S	F	R	P	I																																																																																																															
U	K	A	L	A	B	A	Z	A																																																																																																															
P	L	O	A	L	E	O	K	J																																																																																																															
I	P	T	Z	U	T	A	I	U																																																																																																															
K	J	M	A	N	S	O	R	S																																																																																																															

Institutuko Euskara Batzordea

“Gure ametsa Istitutua euskalduntzia da eta helburu horrekin lan egitten dogu”

Zeintzuk osatzen dozue ikaslien batzordia?

Batzordian maila danetako jentia batzen ahalegintzen gara. Oin 7 gara taldean; Ander eta Ikerne (Zuzendarixak), Argoitz (komikilarixa), Iñaki eta Gotzon (langiliak) eta Maite eta Jone (mintza praktika saila).

Zela zarete antolatuta?

Bi batzorde moduan dare, bata ikaslina eta bestia irakaslina. Iñaki Gerrikagoitia maisua da bi batzordien arteko koordinatzailea. Iñakik asko laguntzen dosku, gure lana zela bideratu eta abar.


Normalian astian behin batzen gara eta zeoze berezixa daganian, gehixaotan.

Zein da batzordiarene helburua?

Batzordiarene helburua Istitutuan euskaria bultzatzeko lan egitia da.

Ze lan egitten dozue?

Bileretan euskerian egoeria eztabaidatzen dogu eta ekintza batzuk pentsatzen dittugu. Kartelak etara; bertsuak, poemak, kantuak, gure euskaria hobetzeko adibidiak.... Lehiaketak be egitten dittugu; tortila lehiaketia, karta lehiaketak... Gero kultura ekitalditxo batzuk be antolatzen dittugu eta beste gauza batzuk. Jaurti



aldizkarirako be idazten dogu.

Zein da euskerian egoeria Istitutuan?

Egoeria asko hobetu da azken urtietatik hona. Oin ez dago euskeriandako hain jarrera txarririk, ze len esaterako, guk kartelak ipini eta gure muturren aurrian kentzen zittuzten. Euskeraz gero eta gehixao eta gehixaok egitten dabe. Erdeldunak be ikusi dabe euskeraz ikastia eta berba egittia posible dala. Batez be sartzen darenak euskeraz

berba egitten dabe baina danetik dao.

Noizko Pil Pileanen ?

Ba tira, gu gogo haundixakin gare Pil Pileanen sartzeko. Esan doskue ia Kultura Saileko bileretara juatia nahi dogun be. Datorren urtian batzordeko nagusixenak eta beste lagun batzuk sartuko gara, Pil Pileanen oso jente majua dagualako. Ia jente gehixao animatzen dan. Iñaki Gerrikagoitiari zorionak eta eskerrikasko bihotz bihotzez !!

Sara Nieves

Zer asmo daukazu Zetorkizunean?

Kitarra jotzen jarraitu eta bi karrera ikasi ; bat kontzerbatorioan ikasi eta bestea animaliekin zerikusia duen karrera bat ikasi .

Zenbat urte daramazu musikan

Lau urterekin musika eskolan hasi nintzen eta zazpi urterekin kitarra zela nire instrumentua jakin nuen eta ikasten hasi nintzen .

Kitarra eta eskolako gauzak ikasteko denborarik ba al daukazu ?

Ez da erreza, denbora asko hartzen dut kitarrarekin,baina ondo antolatzen naiz biekin .

Zer egiten duzu zure denbora librean?

Aspertuta nagoenean kitarra da nire lagunik onena eta lagunekin elkartzen naiz eta kantak abesten ditugu kitarra eta beste instrumentu batzuekin .

Nagusia izaten zarenean kitarrajole famatu bat izan nahiko zenuke ?

Bai, noski baina oso zaila da eta



esfortzu handia behar du .

6- Nola jakin zenuen kitarra zela zure instrumenturik gustokoena ?

Txikitan, nire aitonen etxean kitarra

bat zegoen oso zaharra, eta ni hura hartzen nuen eta jotzen hasten nintzen. Uste dut handik aurrera kitarra zela nire instrumentua. Eta gustora nago.

Jon Arretxeren liburua "Ostiralak"

Ikerne Laskurain 15 urte

Liburua oso polita da. Gaztiendako egindako liburu bat da. Betiko eskematik kanpora dago eta oso gustora irakurri dot. Gurasuak be irakurri bihar leukie, gaztiak zelakuak diran eta garan enteratzen juateko. Gauza asko ikasiko littuzkie.



Gorka Bollar 16 urte

Gaztiendako liburu bat da. Gazte hizkeria erabiltzen dau, irainak eta hola. Guraso batzuen partetik kritikak jaso ei diitu eta normala da, ze, erabiltzen diituan gaixak, seksua eta parranda izaten dia askotan. Nik oso gustora irakurri dot.



Unai Txurruka 15 urte

Oso liburu originala irudittu jata. Barre asko egin dot liburu hau irakurtzen. Denbora faltaz zapatu arratsalde baten irakurri neban gehixena, dana segidan eta oso gustora. Kritika asko euki dituu baina uste dot gustora irakurtzen bada ez dala hain txarra izango. Gurasueri kritika on bat egin dotset liburuan inguruan eta irakurtzeko desiatzen dare.




Iraider Garzia 16 urte

Politta irudittu jata. Literatua serixuagua irakurtzen dabon jentia kritika gogorak egin dotsaz gaztien bizimodu gordin gordinik azaltzen dabelako baina neri asko gustau jata. Danak irakurtzeko moduko liburu bat da.



KOMIKIA



Zein da argazkixan agertzen dan irakaslia?

DEITU 943 75 13 04 telefonora eta Eibarko Unzaga zinerako bi sarreraren zozketan satuko zara.

(Zuk eta zure lagunak goxo goxo filma eder bat ikusteko aukera izango duzue)



Plaentxiar misiolariak munduan zehar



+ J. M. GALLASTEGI

Jesuita Venezuelan. 1.999ko ekainaren 15ean hil zen Caracasen 68 urte zituela.




ANTONIO GURIDI

Misiolari Venezuelako Seblarren. Maisu eta eskola profesional baten.



IMANOL ALBERDI

Pasionista izana Puerto Ricon eta gaur egun Irungo parroko.




IGNAZIO OREGI

Jesuita Japonen. Japongo Misio Katolikoan, eskolak eta mezak ematen.



RAMON BEREIKUA

Marista Japonen. Eskola katoliko bateko zuzendari.



M. LUISA MAKINAI

Merzedaria Panaman. Ume txiroendako eskola baten



ESOZIA
Erreteri
Jatetxea

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

Mendata taberna

Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)



Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87



IRATXO
GOXOTEGIA

EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
Tlfnoa: 943 75 13 20

ARMENDIA
JATETXEA



Ezozu Auzoa, 11
20590 Sorraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala



ION MURGIZU
Pinturak

Empapelatuak
Margoketa orokorrean
eta Estukoak

Telef. 943 75 13 24
Eskuko telef. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24 2 behea
20590 SORALUZE



Lakuesta
Optika

Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Sorraluze
Tfnoa 943 75 30 59

KIROLA EUSKARAZ: 115 neska mutikok eman dute izena

Udalak eta Ikastolak antolatutako Kirola Euskaraz programa geroz eta errotuago aurkitzen da. Aurten 115 neska-mutikok eman dute izena bertan parte hartzeko, honek ikasle kopuruaren %58-a suposatzen duelarik. Hiru urte pasatu dira programa martxan jarri zenetik eta helburuak gutxinaka gutxinaka betetzen doazela dirudi. Neska mutikok urtean zehar kirol ezberdinak probatuko dituzte orainarte gure herrian "tradizio" handirik izan ez duten hainbat kirol ezagutzeko (eskubaloia, saskibaloia, xakea...) aukera izango dute.

Entrenatzaileei dagokienez aurtengo urtean neska mutikok ezagunak dituzten entrenatzaileez aparte, aurpegi berriak ere izango dituzte, joan den urtean bost entrenatzaile bait zeuden eta aurten zazpi. Hauek dira Kirola Euskaraz-en parte hartzen duten entrenatzaileak: Jon Zabala eta Aritz Sodupe (Eskubaloia), Joseba Exposito eta Koldo Heriz (Pelota), Egoitz Portu eta Xuban Catalán (Futbola) eta Natalia Lamelas (Saskibaloia).

Aritz Laskurain DV-Tele5ko finalean

Aritz Laskurainek DV-Tele5 txapelketako finala jokatu du abenduaren 22an Tolosako Beotibar pilotalekuan. Finalerako txartela abenduaren 5ean eskuratu zuen, Ubera elgetarra bikote zuela, Sorarrain eta Zapirain 22 eta 11ko emaitzaz menpean hartuz.


Finalerdietan partidu ederra jokatu zuen Aritzek Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Partidu gogorra izan zen, Aritzek eta Uberak erasoan jokatu zuten partidu gutxian zehar. Aurkariak defentsa lan bikaina egin zuten eta final garrantzitsurako txartela garesti saldu zuten.

Beste emaitza batzuk

Erlei Txurrukak Orioko laurdiko txapelketan finalera iristea lortu zuen. Finalerdietan Elgetako laurdi txapelketako txapelduna menperatu zuen 22 eta 13ko emaitzaz baina finalean ezin izan zuen bere jokorik onena erakutsi eta 22 eta 12ko emaitzaz galdu zuen Oinatz Gonzalezen aurka.

Aritz Laskurainek joan den abenduak 14ean Bergarako pilotalekuan Ubera elgetarra bikote zuela klubaren arteko finala jokatu zuen eta ez zuten garaipenik lortzerik izan eta finalean 22 eta 18ko emaitzaz galdu zuten.

Amaitzeko, Jon Arrietari buruz hitz egin behar dugu, Jonek urte amaiera ona



Ubera eta Laskurain pilotariak.

izan du eta nahiz eta jokatu azken finala galdu, bere jokoaren momentu on batean aurkitzen da. Jonek, Roteta zarautzitarra lagun zuela Zumarragako Goñi memorialeko finalerako txartela modu ezin hobean lortu zuen, finalerdietan aurkariak batean utzi zituztelarik. Finala abenduaren 14ean jokatzekoa baina Zubieta eta Uharteko pilotari naparrak eguraldi txarra zela medio ez ziren azaldu partidua jokatzera eta finala sapatuta atzeratu zen. Jonek eta Rotetak ezin izan zuten finalean beraien egiatzko maila eman eta finala 22 eta 9ko emaitzaz galdu zuten.


Erlei Txurruka pelotaria eta Arrate Azkona atleta Etorkizuneko Kirolari izendatu dituzte

Gipuzkoako diputazioak urtero bezala etorkizun gehien duten kirolari gipuzkoarrak saritu ditu abenduaren 20an Kursaaan egindako saioan. Saio hontan Anton Abbadia sariak banatu ziren eta aurten gure herriko bi puntako kirolarik jaso dute saria; Erlei Txurrukak pilotan eta Arrate Azkonak atletismoan. Bi kirolari gazte hauen errendimendua izugarri ona izan da eta esperantza handiak daude beraien etorkizunari begira. Zorionak biei eta Soralezari.



Javier Alonso Zelaieta

Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13



Txurritxu

gozotegia

Santana kalea, 22 A
Tfnoa 943 75 24 43


Juan Alberdi bizkorrena Atxa Memorialean

Juan Alberdi plaentxiarra izan da Atxa Memorialaren 20. Ediziñuaren irabazlea. 26:00 ko denbora bikaina eginaz, Juanek diferentzia nabarmena etara zotsen bere aurkarixeri.

Aurtengo ediziñuan 142 korrikalarik hartu dabe parte krossian. Azpeitia, Elgoibar, Mendaro, Eibar, Ermua, Gernika, Zarautz eta beste hainbat herritatik etorri dira korrikalarixak.

Memorialak 20 urte daroiaz korrika

Oraindela 30 bat urte hasi ziran herri krosa antolatzen herrixan. Alejandro Rodrigozezek kontatu doskunez, “egunero poligonuan entrenatu eta astebururo, inguruko herrixetara juaten ginan konpetitzera eta beti etortzen ginan koparen batekin”.



Juantxo Alberdi bere sariarekin.

1980eko Urtarrilaren 13an Jesus Atxa hil zan eta ordutik aurrera Soraluzeke Herri Krossaren ordeze Jesus Atxa Memorialea egitten hasi ziran bere omenez. Oin “lan talde polit bat dago, laguntza haundixa jasotzen dogu jentiairen partetik. Jentiairen maittasuna igarri egitten da eta horregatik etortzen da hainbeste jente Plaentxiako kross txiki honetara”.

Juan Alberdi 6. Azpeitian

Juan Alberdi korrikalarixak 6. Postua lortu zeban abenduaren 16xan jokatu zan Azpeittiko Ikasberri Krossian. Ibilbidiak 9.400 metro zeuzkan eta Juanek 32 minutuko 44 segunduko denboran egin zeban. 6. Egittiaz gain, Gipuzkuako lehenengo postua be beria izan zan. Aurrera begira, Euskadiko Txapelketaren barruan daguan Gasteizko Maratoi Erdia egitteko asmua dauka.

Zigor Esnaola korrikalarixak berriz, zorte eskasagua izan dau eta gaixo egon da neumoniaz. Halata be, azaruaren 23an, Santurtzi-Bilbo lasterketa korritu zeban eta Eibarko Bolunburu memorialea eta Asteasuko maratoia prestatzen dihardu orain.

Kirol Bazkuna lehendakari bila

Soraluzeko Kirol Bazkuna lehendakari bila dabil. Urtiak dira Juan Cruz Aranzabal Lehendakari daguala eta bere ustetan “heldu da ordua lehendakari berri baten bila hasteko. Ez da lan haundixa izaten baina pertsona berri bat egotia litzake onena”. Norbait animatuko balitz elkarte edar honen buru izatera, kirol elkarteko sailen bateko norbaiti adierazi eta bere hautagaitza aurkeztu biharko leuke. Ia batenbat animatzen dan!

SAILKAPENA

SENIOR MAILAN

Gizonezkuak: 48 korrikalari

1. Juan Alberdi (Soraluze) 26:00
2. Xabier Iturralde (Urrestilla) 26:44
5. Zigor Esnaola (Soraluze) 28:35
12. Carlos de Cos 30:06
20. Joakin Ruiz 32:38

Emakumezkuak: 5 korrikalari

1. Arantza Aldalur (Azpeitia) 33:39
2. Pilar Arriola (Elgoibar) 34:29
5. Itziar Goenaga (Soraluze) 48:36

KADETE JUNIOR MAILAN

Gizonezkuak: 6 korrikalari

1. Xabier Eizagirre (Azpeitia) 14:31
3. Gorka Tornos (Soraluze) 15:36

ALEBIN- INFANTIL MAILA

Gizonezkuak: 10 korrikalari

1. Ibai Azkoitia (Elgoibar) 7:34
2. Ander de Luis (Soraluze) 7:43

Emakumezkuak: 4 korrikalari

1. Maitane Aizpuru (Azpeitia) 8:25

BENJAMIN MAILAN

Gizonezkuak: 30 korrikalari

1. Borja Diez (Elgoibar) 5:07
2. Leo Zarobe (Soraluze) 5:11

Emakumezkuak: 11 korrikalari

1. Naia Menbrillera (Elgoibar) 5:56
2. Ixone Iñarra (Soraluze) 5:58

AURRE-BENJAMIN MAILAN

Gizonezkuak: 16 korrikalari

1. Iñigo Ruiz de Galarreta (Eibar) 2:35
3. Jokin Arrillaga (Soraluze) 2:55

Emakumezkuak: 14 korrikalari

1. Otsadar Urain (Mendaro) 2:49
2. Miren Goenaga (Soraluze) 2:59

Gabonetako merkatua zabalik

Aurten Soraluze futbol taldeko direktibakoek ez dute kirolari dagokionean behintzat gabon lasairik izango erregio-

nal taldea krisi latz batean sarturik bait dago. Talde nagusiarri lehen buelta bukatzeko falta zaizkion partiduak irabazteko-

ak dira baina ez da honelakorik gertatu. Kilimon 3 – Sora 2 eta Elgoibar 6 – Sora 1. Sora zuloan aurkitzen da eta kategoria mantentzeko aukera emango zion postua 11 puntutara du. Zuzendaritzako jendea buru belarri ari da fitxaketa batzuk burutu nahirik eta iadanik bi atzelari konbentzitzea lortu du: Alberto Martínez eta David Martínez. Bi jokalar hauek taldearen egoera ikusita eta zuzendaritzaren eskaeren ondorioz taldera bueltatzea erabaki dute. Arazo denak ez dira fitxaketa hauekin konponduko eta kluba osatzen dutenek

(entrenatzaile, jokalar eta zuzendaritzakoak) egoeraren zergatiak pentsatu beharko dute ea denen artean egoera gogor eta triste honi irteera bilatzen dioten.

EMAITZAK:

Erregionala:

Kilimon 3 – Sora 2

Elgoibar 6 – Sora 1

Jubenilak:

Union Txiki 3-Sora 1

Billabona 3-Sora 1

Kadetiak:

Sora 4 – Urki 0

Sora 0 – Hamaikabat 5

Kazetariak: Xuban Catalan eta Egoitz Unamuno.



Sorako Kadete taldea.



Olentzerorekin kantuan

Aurten ere asko izan dira Gabonetan kantu kantari ibili diran taldiak: 23an bertso eskolako neska mutikuak jardun zebe kalez kale, 24an; goiz partian ikastolakuak eta musika eskolako trikitixa taldea batera ibili ziran, baserriz baserri eskian be urten zeban beste lagun talde batek. Arratsaldian, Pil Pileanek deitu zotsan Olentzerori eta Plaza Barrixan umien postaltxuak jaso zituan. Amaitzeko Presoen Eskubideen alde be urten zebe kantuan olentzerorekin.

Beti Presten 10. Urteurrena



Iragarri moduan, Beti Prest haurrendako asialdi taldiak 10. Urteurrena bete dabela ospatzeko prestatuta zeuzkan ekimenak bete ditu abenduan. Abenduaren 15ian umiekin batera Plaza Barrixan egittekuak ziran jolasak abadetxian dauken lokalian egin zittuzten. Kanpuan ez zan giro eta hotzak belarrixak izoztu baino lehen, nahixago izan zebe lau homak emoten daben epeltasuna bilatzia. Goiza umiekin jolasian pasatu zebe

eta eguardixan Txurruka jatetxera juan ziran, Beti Presteko begirale izan diran 25 bat lagun eta azken urtietan herrixan abade izan diran 3 abadekin; Don Benantzio(Elgoibarko abade dana), Antonio (apaiz ohia) eta Jokinekin (herriko abadia). Honekin batera, 10 urtetan zihar egin daben ibilbidia erakuste aldera, aste honetan zihar argazki erakusketa bat jarri dabe abadetxe azpiko lokalian.

Egoitz unamuno

Eta literaturaz?

Hil honetan zozketan?

LAGUN
IZOZTUA

JOSEBA SARRIONANDIA



**LAGUN
IZOZTUA**

Egilea:

Joseba Sarrionandia

Bilduma:

Literatura 216

Orriak:

460

Data:

2001eko azaroa

Oroimena eta hitza galdu ditu Goio, "izoztuta" geratu da Bluefieldsgo bere erbestean, eta hari laguntzera doa Maribel, errefuxiatuen postaria; Ekuadorrera eramane nahiko du sendatzera, han bizi baita paper faltuekin Andoni, Goioaren ikaskide izandakoa, baina bidaiaria ez da inondik ere erraza.

Gai, garai eta gertaleku ugarioko eleberria dugu Lagun izoztua, baina, iceberg baten antzera, askoz gehiago da sujeritzen zaiguna.

Joseba Sarrionandia Uribelarrea (Iurreta, 1958). Euskal filologian lizentziatua, aldizkari askotako kolaboratzailea, itzultzailea, euskaltzain urgazlea, Pott bandaren sortzaileetakoak, kartzelan egona 1980-1985 bitartean eta geroztik iheslaria.

Eta galdera da?

BA AL DAKIZU SARRIREN BESTE LIBURUREN BATEN IZENBURUA?

BALDIN BADA KIZU DEITU
943 75 13 04 TELEFONORA.

Aurreko aleko irabazliak:
Aitziber Atxa eta Edurne Galarreta (Eibar)

Animo! Joseba Sarrionandiaren "Lagun izoztua" elaberriaren bi ale daukazazu zure zai!

**PIL PILEAN ETA ELKARLANEAN
BAT EGINDA,
EUSKAL LITERATURAREN ALDE**

JOSETXO Ardangela

PINTXO ETA OTARTEKOETAN
ESPEZIALITATEA.

Atxuri,9 SORALUZE Tlf: 943751571

**TXOKO
KAFETEGIA**




Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behe, telf: 943751789

Pil Pilean hamabostero etaratzeko egitasmua

Pil Pilean Kultura Elkartiak datorren urterako plangintzia prestatzen dihardu buru belarri. Eskuartian darabixazen gainen artian, aldizkarixa hamabostian behin etaratzeko egitasmua izan leike deigarriena. Aldizkariko lan taldiaren eritziz, “herriko berrixak hilabetian behin etaratzia berrri izaera hori galdu eragitten dotsa Pil Pileani”. Asmua “16 orrialderekin hilian bi aldiz etaratzia litzake” baina horretarako “inprenta eta biharrezko diran langilieri gitxieneko soldatatzko bat ordaintzeko laguntzia emon biharko dosku Udalak eta herriak”. Honekin batera, aldizkarixa Interneten ikusgai, One Line jartzeko egitasmua be laster egongo da prest, Pil Pilean Herri Aldizkarixen Topaguniaren proiektu orokorraren barruan dago eta. Elkartiari begira, barne antolamenduaren (ardurak, karguak eta barne sailak banaketu...) berregituraketa bat egittia da helburu nagusixa; aldizkarixa, Kultura Saila, Gazte Saila, banatu eta elkartiaren barne sail autonomuak eratzeke, danian jente berdina ibili eta nahaste bat izan ez



Jon Pil Pilean dagan lokaleko lehiuan aldizkarixarekin

“Kultura eta jai giro latza” Gaztetxian

Gaztetxeko kultura hamabostaldi edo hilabetealdixa aurrera doa. Orainarteko ekitaldixetan giro bikaina izan da; “salsa ikasturuan jende asko eta oso giro animatua izan zan, Kuba eta Txileko afarixan janari pikantia eta musika Kubatarra, bideo emanaldixetan filma berezixak, mendi garbiketa be egin dogu...”. Gabon garraixan, abenduaren 22xan Pettik eskeini-

ko daben kontzertua eta 28xan egingo dan Gaztetxeko Afarixa dira ekitaldirik deigarrienenak. Afarira juatia nahi dabena, Lonbide eta Arrano tabernetan dauzka salgai sarrerak. “Jentia animatzen dogu, bildurrik bare sartu eta ekitaldixetan parte hartzera! Animo! Ez dogu inor jaten !”.



Gaztetxeko lagun taldea mendi garbiketa egin ostean Urkia Zelain.



Gaztelupeko Hotsak Durangon

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak disketxia Durangoko azokan izan da aurtien be. Juan zan urtian izan zeban arrakastia nahikua ez eta aurtien arrakastata bera edo haundixagua lortu dau. Disketxeko arduraduna da Zarrak esan doskunez “Mikel Urdangarin eta Bingen Mendizabalen Bar Puerto izan da diskorik salduena eta espero genduan, juan zan urtian mikel Urdangarinen arrakastia ikusitta, baina sorpresa bat izan da Joseba Tapiaren “Agur intxorta maite” horrenbeste saltzia. Gainera beste diskuak be ondo saldu dira”. Gaztelupekuak oso gustora dare Durangoko azokan lortutako emaitzekin eta are gustorago aurtengo negua Gaztelupe taberna gainian egokittu daben lantokixan pasatu bihar dabela jakinda. Ondo egindako lanaren fruituak!

Plaentxiar bertsozaliak Anoetan



Abenduaren 16xan jokatu zan Donostian Euskal Herriko Bertsolari Txapelketiaren finala. Plaentxiatik 32 lagun juan ziran, Elgoibartarrekin batera osatu zeben autobus baten. Andoni Egaña izan zan txapelduna, baina larri larri. Egun edarra, bertan bizi biharrekua. Badakizue hemendik lau urtera deittu Pil Piler eta Anoetara.

Kazetaria: Egoitz Unamuno.

UDAL BATZORDEEN BERRI

Estatuko Administrazioak errekurtsua aurkeztu du Udalaren kontra

Estatuko Administrazioak, Brie-
vako espetxean dagoen Lurdes Txu-
rruka, preso, bisitatzera zihoazela

hildakoak herriratzeak sortutako gas-
tuak bere gain hartzeko Udalak har-
tutako erabakiaren kontrako errekur-

tsoa aukeztu du Euskal Herriko Auzi-
tegi Nagusian.

Ana Arostegi eta Javier Mijangos ertzainen hilketa gogor gaitzetsi du Udalak

Alkatetzaren proposamenez, joan
zen Azaroaren 23an gertatutako hil-

ketak gaitzetsi ditu Udalak. Aldi be-
rean, euskal gizarteak bakean bi-

zitzeko azaldu duen nahia onar deza-
la eskatu dio ETari.

Lan Arriskuen Prebentziorako zerbitzua kontratatu du Udalak

Udaleko Lan Arriskuen Preben-
tziorako zerbitzua beste Udal batzue-

kin batera, mankomunitatearen bide-
tik, kontratatzeko Debegesak egin

duen eskaintza onartzea erabaki du
udalak.

Bizitza eta askatasunaren aldeko manifestua onartu du Udalak.

2001ko urriaren 19an, Lehenda-
kariak, Gipuzkoako eta Bizkaiko Di-
putazioek eta Eudelek, sinatu zuten

persona guztien bizitza, askatasun
eta ziurtasun eskubidearen defentsari
dagokion Instituzioen Manifestua


onartu du Udalak.

Kazetaria: Eduardo Pombar.

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak
Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

 **Limpiezas
Trejo, S.L.**
Limpiezas
industriales
Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxe: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

Etxabe harategia
Euskal txahalkia - Bildotsa
Merkatu plaza, 6-7 postuak
Tfnoa: 943752375

 **IÑAKI
IÑARRA**
HARATEGI ETA
URDATEGIA
Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

 **Kiru
Muntaiak**
Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.
Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

OSIÑA
KARROZERIAK
Sagar Erreka, 27
69 Posta Kutxatila
Tfnoa 943 75 17 79
20590 SORALUZE

Kontu Zaharrak

“ERREGE ETXEKO AZKIA”

Historiaz betetako harrizko aska bat izan zan, hain zuzen be. Orain dala gutxirarte, Errabal kalia, bide onduan zeguanari emon geinken izendapena da. Errege-etxian parian egonda, Plaentxiatarak XVI.mendian, orduan bertan eta baita geruago be, mende batzuetan zihar, suzko arma eta arma zurixetan (erramintetan be bai) oinarritutako produkziño industrialan biltegitratze eta azterleku moduan ipinitako lekuan egotiak, mandazainak, euren gurdi eta zamariexekin, fabrikatutako produktuak Alzolako ibaiko portura edo San Adriango pasabidian zihar (probintzian mugan) penintsulako lautadetaruntz eruateko biltzen ziran lekua zerbitzu-geltoki antzerako bat izan zala erakusten dau, dudarik barik. Argittu biharrekua da, guk ezagutu dogun eta orain dala urte batzuk desagertu zan "Errege-etxia" XIX.mendeko lehenengo urtietan eraiki zebela. Orduan, lehenago zeguanaren gainian nabil. Hala eta be, badago arreta haundixa eskatzen daben zehaztasun bat, azken eraikuntza-lanekin lotutakua: Plaza Barriko itturri zoragarrian bi aldietan eraikittako aska bixak

dira, zamari bidezko garraian garraixan zeuken erabilpena erakusten dabenak.

Bitxikerixa moduan, gure umedenporan, oindiok, Arrabal kaleko bide zati horri, "Errege-Etxeko aldapia" deitzen jakon. Geruago bidia lautzeko apurtu zeben aldapa txiki bat zeguan eta; hortik datorkixo izena. Barri nostalgikuak dira? Batzuen dako ez dira hunkigarrixak izango,

zehaztasunak interesik barekuak izango diralako, baina ez da hola gertatuko gure aurretiko milaka eta milaka herritarren lanekin lotutako azarnak desagertziak halako pena bat sortu dotsenekin. Arrabal kaleko aska horretako bat zan. Bere lekua museoren baten egon zeikien, baita San Telmon, Donostian, be, baina...

Etxazpi

Erredakzioan itzulia



Gaur egun ez dago Errege-Etxeko azkia izan zanaren aztarrenik txikixenik be.

Lehiaketia



Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa? (Je,je,je,Ez da daben bezain erreza)

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke

DEITU BIZKOR BIZKOR

943 75 13 04

Aurreko aleko irabazlea: Iñaki Andres
Erantzuna: Artea Pea

Gure **ZELA JANTZI BIHAR** Sorgina **DOGU KIROLA EGITTEKO?**

Gaur egun eguneroko kontua dogu berrikuntzak agertzia eta kirolan munduak be berrikuntza asko izan ditu askenaldixan. Atzian gelditu da kirolarixak baliabiderik izan barik beran kirola egitten zeban garaixa eta gaur egunian esan leike kirol bakoitza azken berrikuntzak erakusten dituan eskaparete txiki bat dala.

Ezinezkoa izango litzake artikulu honetan kirol danetan erabiltzen diran jantzi eta ekipamentuak deskribatzea, hori dala ta, ahaleginduko gara ekipamentu honek izan bihar dituan ezaugarriak bi helburu betetzen, kirolarixan errendimentuan lagundu eta berau hobetzia, eta problema fisikuetatik babestua.

Kirolian erabili bihar diran oinetakuak

Kirolik gehixenetan oinetakuak dira ekipamentu guztian zatirik importan-tienak. Hankan 26 hazur dauzkagu, li-gamentuen bidez lotuta darenak eta honek lautu egitten dira hankiak gure gorputzeko pisua eusten dabenian, gero berriro lengo formia hartzeko. Garrantzitsua da dauzkagun desorekak zuzentzia.

Gaur egungo oinetakuak:

- Oinarri anatomikua dake.

- Babes efektua dake.
- Amortiguadore efektua dake.
- Errendimendurik onena emoteko gertautu egoten dira.
- Kirol bakoitzian berezi diran materialak erabiltzen ditue.
- Biomekanikoki egiaztatuta egoten dira.

Erropa eta kirol ekipua

Oinetakuen moduan erropak be kirol bakoitzian desberdinak izaten dira baina ezaugarri orokor batzuek euki bihar izaten ditue.

- Gorputzeko tenperatura mantendu bihar dabe
- Kirola egitterakuan berua sortzen da eta honen bentilazino on bat emon bihar dabe.
- Izardixak ez dau erropia bustiko eta kanpora urtengo dau
- Kirolarixak ur, haize eta hezetasunetik babestu bihar dau bere burua.
- Urratu eta golpien kontrako babesa emon bihar dabe
- Ahalik eta arinen sentitu bihar dau Tira, ikusten dozuenez teknologiak asko eboluzionatu dau eta gero eta ekipamentu hobia topau geinke esku esku-ra. Batzuek pentsatuko dozue ona bai baina karua bebai! Baina osasunak hainbeste merezi dau!

Oier Oregi

Ygarten Ygartendotela



ARIES Pil-eguna:9
martxoaren 21etik apirilaren 21era
Oin daganu giruakin hobe dozu etxian geratzia eta ikasten hastia, laster datoz azterketak eta.



TAURUS Pil-eguna:14
apirilaren 22tik maiatzaren 21era
Diru dana gabonetako juergetan gaztau biharrarian, beingoiz izan detallista eta egin erregaluak maite ditzuneru.



GEMINIS Pil-eguna: 27
maiazaren 22tik ekainaren 21era
Badakizu zenbat kostatzen daben ur-tian zihar kiluak kentzia? Ba aurtenguan ezizu horrenbeste jan gabonetan.




CANCER Pil-eguna:28
ekainaren22tik uztailaren 22ra
Kaletik zoiazela kontuz ibili, edozein zulotan jausteko aukera haundixa daku eta.



LEO Pil-eguna:1
uztailaren 23tik abuztuaren 22ra
Suerteko zabiz, aurtenguan ez dozu boltxikuak estutu biharrik izango eta.



VIRGO Pil-eguna:13
abuztuaren 23tik irailaren 22ra
Kalian buelta bat emoten zarella. Piscis bat gerturatu ezkeru segi jokua txoratorra eginda lagako dozu eta, piscisak zuen atzetik dabizelako.



LIBRA Pil-eguna:22
irailaren23tik urriaren22ra
Aurtenguan bai! Ziur mutil edo neska eder-eder bat topatuko dozula!




ESKORPIO Pil-eguna:4
urriaren 23tik azaroaren22ra
Berandu zabiz! Erregaluak erositta euki bihar dira askoz lenautik, ze i-xoitten egon zara?



SAGITARIUS Pil-eguna:31
azaroaren 23tik abenduaren 21era
Lasai, nahiz eta aurtan ez zaran oso ondo portau, olentzerok erregaluak ekarriko dotsuz.



CAPRICORNIUS Pil-eguna:24
abenduaren 22tik urtarrilaren 21era
Zuk ez dozu sagitariok beste suerte eukiko, olentzerok ikatza besterik ez dot-su ekarriko eta, ja, ja,ja, ja, ja, ja, ja!



AQUARIUS Pil-eguna:18
urtarrilaren 22tikotsilaren 20ra
Gabon zar egunian, lagun haundi bat egingo dozu, beti nahi izango dozu berakin egotia, berak batzutan kale eingo dotxu, baina benetan maitteko dozun lagun bat izango da, Eurua!



PISCIS Pil-eguna:15
otsilaren 21etik martxoaren20ra
Kontuz ibili etxeko aparatuekin zuk uste ez dozunian botata lagako zaitte eta!

ELKOARTI
VIDEOCLUB
SORALUZE
Gabolatx, 3-bajo
Teléfono: 943 752 487

SORALUZEKO
GAZTE BIZIA

Eta aurkitu ez dutezuenok, berriz, urtebete duzue deskubritzeko.
Zorionak, bidea aurkitu duzuenoi.

ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

Zorionak denori eta urte berri on!



PEUGEOT

zorionak!!!



Iria Martinez Rubio
2001-12-27
Zorionak!!!!
Muxu haundi bat gure txikixari.
GURASUEN PARTEZ



Aitor Gil Elorza
2002-12-15 33 urte
Zorionak!!!!
Zorionak eta eskerrik asko guztiagatik.
CRISTINAN PARTEZ



Enara Agirre
2.002-01-10
Zorionak!!
Ze hagin dira horrek? oindio beste urte
pila baten eruan biharko dituzu. Ai ama!
GURASO ETA PIL PILEANEKUEN PARTEZ.

Ianire Makinai Milan
2001-12-16
Zorionak!!
Zorionak zure hirugarren urtebetetzian!
GURASO ETA FAMILIXAKUEN PARTEZ.



Jon Jon Basauri
2.002-01-05
Zorionak!!
Jon Jon Artano baino kazetari hobia haiz!
GURASO ETA PIL PILEANEKUEN PARTEZ.



Amaia Agirre
2.002-01-22
Zorionak!!
Zelako pozik zaretan ahizta bixok! Ze
ezkontza planen bat dago ala?
GURASO ETA PIL PILEANEKUEN PARTEZ.

Xuban Catalan
2.0001-12-30
Zorionak!!
Hi beti berandu. Jaixo be azkenengo egunian
baina jaixo!
GURASO ETA PIL PILEANEKUEN PARTEZ.



Esther Mancisidor
2002-01-15 25 urte
Zorionak!!!!
Maixua etxean edukita, oraindik italieraz ez
al zara moldatzen? Beste irakasle bat behar al
duzu?
LAGUNEN PARTEZ



Hiari Uelazquez Gorritxategi
2001-12-16
Zorionak!!
Sorgin txiki bat emoten dozu, bazekizun?
GURASO ETA FAMILIXAKUEN PARTEZ.



Garazi Catalan
2.001-12-29
Zorionak!!
Pitturriña, zuk publikizatua egitteko balio dozu!
SENITTARTEKO ETA PIL PILEANEKUEN PARTEZ.

Dohaineko Iragarkiak

GUARDASOLA GALDU NEBAN
Kainaberazko kertena daukana.
Zeozar badakizu eskertuko
nuke dihar bat.
Harremanetarako telf.:
943 75 21 40

BUTANO ESTUFIA EROSIKO
NEUKE

Bonbona urdinerako
Harremanetarako telf.:
943 75 17 11



hildakuak

Alfonso Rincón Navascues
2001-11-29

jaixotakuak

Marina Gabilondo Calleja
2001-11-09

mezen ordutegixa

Astegunetan:

Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)

Sapatutan:

Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)

Domeka eta jai egunetan:

Goizeko 9:00tan (gaztelaniaz),
11:00tan (umeentzat euskeraz) eta
12:30tan (elebiduna)



**Zuen hildakoen
eskela,
eskerrona edo
urteurrena
jarri nahi baduzu,
oraintxe duzu aukera
Pil Pileanen.**

autobusak

PESAko autobusen
ordutegixa jakitzeko
902 10 12 10
telefonora deitu

iletargixan gorabeherak

		Ilbete
Urtarrilak 28	Urtarrilak 13	
		Ilbehera
Urtarrilak 6	Urtarrilak 21	

BATZOKI JATETXEA



Tel.: 943 751212
943 752314
Kalebarren, 26
20590 SORALUZE Gipuzkoa

JABIER ALBERDI

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA
KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

PIL PILEANEN LAGUNTZAILEAK:

GOL INDUSTRIAK
GAZTELUPEKO HOTSAK DISKETXEA
MAIDER LOPEZ PODOLOGOA (EIBAR)
JOSETXO ARDANGELA
HORTZ KLINIKA
PINTURAS JON MURGIZU
ELIZPE HORTZ KLINIKA
LONBIDE TABERNA
PASCUAL CHURRUCA S.A.
ARRANO TABERNA
BOLIA TABERNA
IRATXO
ARMENDI JATETXEA
EZOZI JATETXEA
ELKOARTI BIDEOKLUBA
MAFRE SORALUZE
SORALUZeko GAZTETXEA
LARRAÑAGA MULTIOPTICAS (BERGARA)
AEK
MENDIZABAL OKINDEGIA
MARISA ILEAPAINDEGIA
TXOKO KAFETEGIA
IÑARRA HARATEGIA
MENDATA TABERNA
VENTANAS OLARRI S.L.
ETXEHUN S. A. L.
INDUSTRIAS FER S.A.
TORNILLERIA ARAS S.A. L.
ESTAMPACIONES LAGA S. A.
JUAN MARI ARRAINDEGIA
ETXABE HARATEGIA
ETORMOBIL S..L. (EIBAR)
BATZOKI TABERNA
GILA
SAN ANDRES OJALATERITZA
JAVIER ALBERDI HARATEGIA
LIMPIEZAS TREJO S.L.
KIRU MUNTAIK
OSIÑA
TXURRUKA JATETXEA
ITUR ITURGINTZA
KONTULAN AHOLKULARITZA
TXURITXU GOXOTEGIA
LAKUESTA OPTIKA
BENITO ANAIK ALTZARIAK
JOSU BITXIDENDA
KUTXA
EUSKADIKO KUTXA

**ESKERRIKASKO
BIHOTZ BIHOTZEZ !**



*Pil Pileanen laguntzaile eta 168 bazkideoi:
Zuek zarete elkartearen oinarri. Zentzu guztietan.
Ahaleginak egingo ditugu aurrerantzean hala izan
dadin.*

*Banaka, banaka, danok zarete egitasmo honen parte !
Zuengatik ez balitz ezinezkoa litzaiguke Pil Pilean
kaleratzea. Zuen laguntzari esker egiten du aurrera
Pil Pilean Kultura Elkarteak, egunero egunero
euskara eta herri kultura indartzeko lanean.*

*Egon ziur zuek emandako laguntzaren apur txikienik
ere ez dela bidean alperrik galduko.*



*Guk etenik gabe jarraituko dugu lanean, gure
hizkuntzaren eta kulturaren alde.*

**SORALUZE, BADAUKAZU ZEINI ZER
ESKERTU!**

*Onenak zarete eta euskalzaleenak ere bai !
Bejondeizuela !*


***Gabon zoriontsuak eta urte berri
on bat opa
dizkizuegu!***

**Pil
billean**



beti bezela Gaztelupe tabernan eskuragai!

GAZTELUPEKO Hotsak
 gaztelupeko hotsak
 tel.: 943 753 016
 faxa: 9430750 139
 gaztelupeko@hotsak.com
 www.hotsak.com



CAJA LABORAL
 EUSKADIKO KUTXA

Zorionak eta urte berri on Plaentxiar guztioi!